

Cash-Pooling

Diruzaintzaren ikuspegi orokorra lor dezakezu berehala eta likideziaren erabilera eta gestioa hobe dezakezu

Cash Poolinga hainbat kontu dituzten enpresentzako edo enpresa-taldeentzako diruzaintzaren gestio zentralizatua da.

Produktu horren bidez zure diruzaintzaren ikuspegi orokorra lor dezakezu berehala eta likideziaren erabilera eta gestioa hobe dezakezu.

Funtzionamendua

Cash Pooling zero saldoa enpresaren kontu guztien ekorketa da, kontu horiek saldorik gabe utzi eta saldoak kontu zentralizatu batera eramateko.

Ekorketa balio-dataren arabera egiten da, hau da, zorrean ohar bakar bat eta hartzekoan beste bat egingo da, data bereko ohar guztien emaitzako saldoan.

Abantailak

- Finantza-kontuak hobetzen laguntzen du.
- Errentagarritasuna maximizatzen du, saldo alferrak saihestuz.
- Finantza-kostuak murrizten ditu (kontuak kontrolatzeko administrazio-lana gutxitzen da).
- Arriskuaren kontrola hobetu egiten du: posizio globalari buruzko informazio bateratua ematen du.
- Laburtuz: zure enpresaren gestioa, segurtasuna eta ekonomia hobetu egingo dituzu.

ZIRKUITU OPERATIBOA



KONTU NAGUSIA

